

TREBAKUNTZA 2020-02: PASIBOA ETA INPERTSONALA

Gaztelaniaren eraginez, maiz erabiltzen ditugu euskaraz pasiboa zein inperzonala. Gaztelaniatzko idatzietan sarri ikusiko ditugu “*Se comunica, se hace saber, se dispone...*” erako adierazpideak. Baita ere, “*Han sido llevados, ha sido detenido...*” erakoak.

Hala ere, esan beharra dago, euskara berez hizkuntza aktiboa dela; eta esaldiak subjektua behar duela, hots, ekintza nork egin duen adieraztea komeni dela, esaldia ulerterrazagoa izan dadin.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Gaur goizean **izan dira onartuak** Muxikako Udaleko aurrekontuak.
2. * Istiluen ondoren, zortzi gazte **atxilotuak izan dira**.
3. * Zaurituak ambulanzian **eramanak izan ziren**.
4. * Azterketa eguna datorren astean **jakinaraziko zaizu**.
5. * Ibilgailu honen jabeari **jakinarazten zaio**, hilaren 20rako kendu egin behar duela.
6. * Honekin batera **bidaltzen zaizu** ebazpen hau.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

AZALPENA ETA ZUZENKETAK

Pasiboa eta inperzonala ekiditeko, komenigarria da ekintza norik egin duen adieraztea (nik, guk, haiek...), askoz argiago geratuko baita esaldia.

1. Ad. Gaur goizean **onartu dituzte** Muxikako Udaleko aurrekontuak.
2. Ad. Istiluen ondoren, zortzi gazte **atxilotu dituzte**.
3. Ad. Zaurituak **anbulantzian eraman zituzten**.
Zaurituak **anbulantziak eraman zituen**.
4. Ad. Azterketa eguna datorren astean **jakinaraziko dizut /dizugu**.
5. Ad. Ibilgailu honen jabeari **jakinarazten diot /diogu**, hilaren 20rako kendu egin behar duela.
6. Ad. Honekin batera **bidaltzen dizut /dizugu** ebazpen hau.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699